

## AUTOEBALUAZIOA 4. IKASGAIA

1. Osatu ondorengo taula 2013ko Horizon Txostenak esaten duenaren arabera:

Noizko?	2013ko Txostena Lehen eta Bigarren Irakaskuntza	2013ko Txostena Goi mailako irakaskuntzan
urte batean edo lehenago	Hodei konputazioa	MOOK (lineako ikastaro ireki masiboa)
		Tabletak
2-3 urteetan	Ikaskuntzaren analitikak	
	Eduki irekiak	Ikaskuntzaren analitikak
4-5 urteetan		3Detako inprimaketa
	Laborategi Birtual eta Urrunak	

2.- Konparatu Facebook eta Twitter sare sozialak ondorengo ezaugarrien arabera:

	Facebook	Twitter
Erabiltzaile kopurua		
Komunikazioaren helburua		
Mezuak		

3. Esaldi hauetatik zein da zuzena (Z)? Zein okerra (O)?

1. Blogak mezuak kronologikoki gordetzen ditu.
2. Blogak erabiltzaile batek edo hark baimenduak editatu dezakete.
3. Wikia ez da anonimoa, baina edonork idatz dezake identitate elektronikoa erabiliz gero.
4. Wikiak orri dinamikoak ditu eta norberak nahi duen eran antolatzen ditu edukiak.
5. Blog baten ezin harpidetu RSS (sindikazioa) eginez.

#### ERANTZUNAK:

1. GALDERA. Lehen eta Bigarren irakaskuntzan: Mobilen bidezko ikaskuntza eta 3Detako inprimaketa; Goi mailako irakaskuntzan: Jokuak eta joku-mekanismoen erabilera eta teknologia eramangarria.
2. GALDERA: 1) Erabiltzaile kopurua: “Jabeak mugatzen du kide kopurua eta ezaguna izaten da. Saretu nahi diren kideen “gonbitea” onartu liteke ala ez” eta “Mugatu gabe eta kide ezezaguna. Mezuak birus modura zabaltzen dira. Arrakasta bultzatzen da: zenbat eta jarraitzaile (tweeps edo followers) gehiago hobea”. 2) Helburuaren arabera: “Sare soziala: eremu hurbileko kideekin erlazionatzeko erraztasuna eskainiz”, eta, “Sare tematikoa: sare erraz sortzen da, berehala eta arin komunikatzeko aukera eskainiz”: 3) Mezua: “Erlazio pertsonaletan edo aisialdian oinarrituriko mezuen (*tweet*) bidez. Mezu batzuk modu pribatuan jar litezke, beste batzuk argitaratu. Ikusle anonimoak egon litezke” eta “Microblogging-ean oinarrituriko mezu (*tweets*) arin eta laburrak (140 karaktere). Berehala komunikatzeko sortzen dira gai baten gainean sare-eztabaida sustatuz”.
3. GALDERA: 1) Z; 2) Z; 3) Z; 4) Z; 5) O.